



Gaur helduko dira gurera hiru Errege Magoak

TOLOSA ▶

**Antzerkia,
musika eta
erakusketak
nagusi**

Adin guztientzako
ekitaldiak ▶ 3

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Opariak eta ilusioa banatuko dute
bi eskualdeetako hainbat herritan

USADIOA ▶ Leitzako Gogorza,
Hernandorena, Zestau eta
Larrazekin atzera begira ▶ 4-5


Marijose Rekalderen koadroak eta eskulturak ikusgai Aranburun

TOLOSA ▶ Hilaren 15era arte egongo dira
lanak jauregian; collage eta oleoak aurki
daitezke material oso ezberdinez eginak ▶ 2

ALEGIA ▶

Intxurreko futbol talde gehienak igoera fasean daude

Senior, kadete eta lurraldekakoak;
gazteak, berriz, Gipuzkoako kopan ▶ 6



Ugaitz Renobales. HITZA

ALEGIA ▶

XIX. Olazar Txapelketan irabazle izan da Ugaitz Renobales

Lizartzako Mikel
Olaetxearen aurka
aritu zen 22-17ko
emaitzarekin ▶ 6



E. EZEIZA

ZAS
soinu
ikastaroa
Informatika musikala
(Cubase)
Grabaketa eta masterizazio
profesionala.
P.A. eta monitoreak
Eta abar
943 65 35 35
www.sointek.net

kamarak, apple ordenagailuak, errebelatuak
estudio argazkiak, erreportaiak, i-pod, mar-
koak, era guztietako albumak, karneterako
argazkiak, liburu digitalak, oparirako euskarri
bereziak.....

NESTOR ARDANAZ
ESTUDIO

oria 4 tolosa

argazki denda berria

ERAKUSKETA ▶



Fruta bilketa. Hiru kuadroz osatutako triptiko da hau. Oleo eta collagea dago tabla gainean eginda. 150x90 zentimetroko neurria du. E. EZEIZA



Energia gela. Tabla baten gainean, oleo eta collage bitartez egina dago kuadro hau. E. EZEIZA



Ama. 80x140x120 zentimetroko nerria du eskultura berezi honek. E. EZEIZA



Oroitzapen biltegia. 35x80x60ko neurria du eskultura honek. E. EZEIZA



Buru bat ametsekin. 38x82x50 zentimetroko neurria du eskultura honek. E. EZEIZA

Rekalderen koadro eta eskulturak ikusgai

Aranburu jauregian izango dira hilaren 15era arte; material zaharrei bizia eman die berriro lan honetarako iruñearrak

ESTI EZEIZA

Marijose Rekalderen eskultura eta pintura lanak ikusgai dira Aranburu jauregian. Hil honen hamabostera arte egon-

go dira Tolosan nafarraren obrak. Erakusketa honetan, material oso ezberdinez egindako gizakien irudiak eta tablen gainean gauzatutako collage eta oleoak aurki daitezke.

Rekaldek dagoeneko erabiltuta eta zakarretara botata zuden materialak erabili ditu. Hauek berpiztu eta zentzua ematea lortu du. Hala, material hau, bide iskinetatik, ontzitegietako ganbarretatik eta dagoeneko balio ez duten lekue-tatik hartu eta bizia nahiz zentzua ematea lortu du. Material organikoak erabiltzen ditu gehienetan: larru zatiak, kristalak, hezurak, sokak...

Haragitze prozesu honetan garrantzia duten hainbat fakto-

re daude. Alde batetik, materialek gainean dituzten aztar-nak begiratu ematen dituzten oroitzapenak daude. Bestetik, artistak bere lanei ezartzen dizkien forma borobilduekin, pertsona bizidunak gogorazten ditu.

Artistaren azken lan honetan, eskultura figuratiboak, hau da, geldirik dauden pertsonaia beldurgabeak aurki daitezke. Gizonak haur eta animaliekin, oreka hauskorreko emakumeak, materia atxiki eta ondoren sustantzia adierazgarri berri batean kondentsatzen duten gorputzak. Irudiak gramatikako funtseraino sinplifikatu ditu, erretratu zehatzak eta bereziak izan beharrean, gizabanakoaren alegiazko erreflexuak izanik. Aurpegi eta espresiorik gabe ateporalitatek kanpo daude Rekaldek irudikatu dituen gizakiak.

Eskulturak pusketez eginda daude, eta bata bestearekin lo-

zten ditu komeni den moduan. Dena den gorputzeko zati hauek babestuta daude, eta siluetaren formetara egokitzen den edozein materialekin estaliaz. Alde batetik, lotsaren zentzua indartzen du. Horretarako pertsonaia estaltzen ditu jantziekin. Baina bestetik, bular handiak, bulbak eta zakilak irudikatzen ditu behar den tokian. Arraza beltza eta afrikan kulturak leku handia du Iruñe-akoaren lanean. Koadroetan ageri diren pertsonaia asko arraza beltzekoak dira, eta eskultoretakoak ere bai. Hauek, Afrikan bizitako esperientziaren isla dira.

Bestetik, Marijose Rekalderen azken kuadroek paleta urri eta neurtuak aurkezten dituzte. Honekin, erregistro grafikoak indartu nahi ditu egileak. Lerro finko eta zuzenak ageri dira, hala, pintzelkadek gorputzak inguratzen dituzte, hauek nabarmenduz.

IXIAR ARTEAGA
ABOKATUA
HERENTZIAtan
esperientziduna
Tel.: 618 13 00 81

KULTURA ▶

IÑIGO TERRADILLOS

Urte berria heltzarekin batera, kultur ekitaldi ugari gozatzeko aukera izango da herriko hiru gunetan: Aranburu jauregian, Kultur Etxean eta Leidor aretoan.

ARANBURU JAUREGIA

Marijose Rekalderen erakusketa. Iruñakoak eskultura eta pintura erakusketa jarri du ikusgai Aranburu jauregian. Material ezberdinak berreskuratuz berriro ere bizia eman die bere lanen bidez. Erakusketa hilaren 20ra arte bisitatzeko aukera izango da, 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenean izan ezik.

'Ingurugiro' erakusketa. Hondakinei buruzko *Ingurugiro* erakusketa izango da ikusgai hilaren 13ra arte Aranburu jauregian, 17:30etik 20:30era, jaiegunetan eta astelehenean izan ezik.

KULTUR ETXEA

Merkatu Txikia. Laskorain Ikastolak antolatutako, urtero bezala, Merkatu Txikia jarri dute Kultur Etxean, *Eutsi elkartasunari* lelopean. Aurtengoan, bertan bildutako dirua sahararrek eta ekuadortarrak laguntzeko baliatuko dute. Etzi izango da azken eguna.

Odol ateratzea. Hilaren 15ean egingo dute odol-ateratzea Kultur Etxean.

AHT jardunaldiak. Hilaren 26tik otsailaren 2ra arte AHT Gelditu! elkarian antolatuta AHT jardunaldiak izango dira.

LEIDOR ARETOA

'Infiltrados' filma. Gaur izango da ikusgai 22:30ean. Bihar, berri, 19:30ean eta 22:30ean, eta etzi, 19:30ean.

'Betizu eta Xangaduko misterioa' filma. Gaztetxoentzako pelikula hau bihar eta etzi izango da ikusgai 17:00etan.

Antzerkia, zinema eta erakusketak, kultur egitarauan nagusi

Gaztetxoenei zein helduei zuzenduriko pelikuletan eta antzezlanetan eskaintza handia izango da urtarrilean



Erreleboa antzezlan hilaren 12an izango da ikusgai Leidor aretoan. HITZA

'Workingman's death' filma. Zine forumaren baitan, hilaren 11n izango da ikusgai, 19:15ean eta 21:45ean.

'Erreleboa' antzezlan. Hilaren 12an izango da, 20:00etan.

'El perfume' filma. Hilaren 13an, 19:30ean eta 22:30ean, hilaren 14an, 19:30ean eta hilaren 15ean 20:30ean izango da ikusgai.

'Kiss me deadly' filma. Zine forumaren baitan, hilaren 18an izango da ikusgai, 19:15ean eta 21:45ean.

'Holiday' filma. Hilaren 19an 22:30ean, 20an 19:30ean eta 22:30ean, 21ean 19:30ean eta hilaren 22an 20:30ean izango da ikusgai.

'L'enfant' filma. Zine forumaren baitan, hilaren 25ean izan-

go da ikusgai 19:15ean eta 21:45ean.

'Cuatro bromas y un funeral' antzezlan. Teatro Estudioren lana hilaren 26an izango da ikusgai.

'Ahatetxo itsusia' antzezlan. Maite Frankoren eskutik gaztetxoei zuzenduriko antzezlan hau hilaren 27an izango da ikusgai, 17:00etan.

MUSIKA ▶

Udal Txistulari Banda eta Musika Banda bihar eguerdian

12:30etik aurrera izango da kontzertua Udal Musika Eskolako areto nagusian

ERREDAKZIOA

Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak bihar kontzertua eskainiko dute, 12:30ean Udal Musika Eskolako areto nagusian. Musika Bandaren kasuan, Vienako Urte Berriko kontzertuan eskaintzen diren Straussen valsak eta polkak izango dira protagonistak kontzertu honetan. Udal Txistulari Bandakoen kasuan, Felix Ascasoren eta J.I. Ansorenaren lanak interpretatuko dituzte. Herritar guztiak gonbidatzen dituzte emanaldi berezi honetara.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

POLITIKA ▶

Elkarretaratzeak Madrilgo atentatuak gaitzesteko

Tolosan 60 lagun inguru bildu ziren atzo eguerdian, udaletxearen aurrean, isilunea gordetzeko

ERREDAKZIOA

Hego Euskal Herrian hainbat elkarretaratze egin zituzten atzo eguerdian, erakunde publikoaren aurrean, Eusko Jaurlaritzak deituta, eta Eudel udalen elkarteak babestuta, besteak beste, abenduaren 30ean Madrilgo Barajasko aireportuan izan zen atentatua salatuzko.

Hala, isilunea gorde zuten egoniko bilkuretan. Tolosan, esaterako, 60 lagun inguru bildu ziren udaletxearen aurrean. Herritarrez gain, alderdi desberdinetako ordezkariak elkartu ziren eta bost minutuko isilunea egin zuten.

Atentatuaren ondoren, hildako bat behintzat, badago: T4 terminaletik hondakinak at-

ratzen ari diren suhiltzaile eta polizia desagertutako lagunetako baten hilotza aurkitu zuten herenegun arratsaldean, Carlos Alonso Palaterena, hain zuzen. Diego Armando Estacio ere T4ko D moduluan geratu zuten harrapatuta, eta bere gorpua, oraindik, bilatzen jarraitzen dute erreskate taldeek.

Bestalde, atentatuaren egu-

nean Madrilgo Barajasko aireportuan hegaldi bat hartzekoa zen senitarteko bat desagertuta dagoela jakinarazi du Uruguako familia batek. Abenduaren 30ean Madrildik Uruguairako bidaia egitekoa zen desagertutako senidea, baina ez Madrilen ez eta Uruguain ere ez dutela topatzen ohartarazi dute.

ALEGIA ▶ FUTBOLA

NEREA URBIZU

Alegiko futbol eta areto futboleko taldeak sendo ibili direla esan behar da; izan ere, lau taldeetatik hiruk, seguruenik, igoera fasea jokatu dute. Hau erabakitze hiru partida falta zaizkie, hilaren 13an lehenengo norgehiagoka izango dutelarik.

Jubenilak izan dira okerren ibili direnak, bosgarren geratu baitira sailkapen nagusian, igoera fasea jokatzeko postu bat beherago, hain zuzen. Beraz, Gipuzkoako Kopa jokatu dute hemendik aurrera.

Kadeteek denboraldi («ia biribila») egin dute: hirugarren egin dute ligan eta igoera fasea jokatu dute, kadeteetan Ohorezko Mailan jokatu ahal izateko. Hurrengo partida etzi bertan izango dute 17:00etan Orioko taldearen kontra, Orion bertan. Besteen artean, Zumai, Elgoibar, Urnieta, Beobia, Lesaka, Amara edota Irungo taldeen kontra jokatu beharko dute maila berrian aritzeko.

Senior mailako neskek eta lurraldekako mutilak ere aritu dira ligan. Hauek ere maila ona erakutsi dute. Hiru partida falta zaizkie lehenengo fasea bukatzeko, eta «emaitzak eta erakusten ari diren maila mantenduko balira, ez lukete arazorik izango igoera fasea jokatzeko», ziurtatu zuten antolatzaileek.

Nesken taldeak azken bi par-

tidetan ez du dagokion maila erakutsi, Altzakoen aurka galdu baitzuten —galdu duten bakarra da—, eta azken asteburuan Zaldibian binakoa egin zutelako. Bigarren daude sailkapenean 23 punturekin eta Aldapeta, Idiazabal A eta Idiazabal taldeen aurkako norgehiagokak falta zaizkie, lehenengo fasea bukatzeko eta igoera mailan aritzeko. Alegiarren aurretik Laskoraingo neskek daude, 27 punturekin.

Lurraldekakoek ere beste hiru partida jokatu beharko dituzte Ohorezko Mailako fasean aritzeko: Axular, Amaro eta Urnietakoen kontra, hain zuzen ere. Hauek ere, senior mailako neskek bezala, sailkapen nagusian 2. postuan daude, 21 punturekin.

Shanti torneoan ere bai

Intxurreko hiru talde daude Tolosako Shanti torneoan: infantil mailako neskek eta mutilak, alebinak eta benjaminak. Azken hauek 3 partidak irabazi dituzte, alebinak final-laurdenetan kanporatu zituzten. Infantiletan mutilak finalean dira etzi, Shanti Kirolakoen aurka.

Intxurrekoak igoera fasean

Seniorrek, lurraldekakoek eta kadeteek sailkapen orokorrean lehenengo lauren artean geratuta fase berria hasiko lukete; gazteek Gipuzkoako Kopa jokatu dute



Senior mailako neskek bigarren daude sailkapen nagusian, 23 punturekin. PATXI RENOBALDES



Kadeteek hurrengo norgehiagoka etzi dute Orion, Orioko taldearen aurka. PATXI RENOBALDES

ALEGIA ▶ PILOTA

XIX. Olazar Txapelketako irabazlea Ugaitz Renobales izan da

Lizartzako Mikel Olaetxearen aurka izan zen finala eta 22-17ko emaitza egin zuten

N. URBIZU

Ugaitz Renobalesek beste garaipen bat lortu du. Zaldibarko XIX. eskuz banakako Txapelketan izan zen, hiru partidak jokatu eta hirurak irabazi ondoren. Pasa den abenduaren 31n finala jokatu zuen Mikel Olaetxea pilotari lizartzarraren aurka eta 22-17ko emaitza izan zen amaierako markagailuan.

Eskuz banakako Zaldibarko torneoan hiru partida jokatzen dituzte, eta lehenengo partidaren alegiarrak Azagirre nafarrari irabazi zion, eta bigarrenean, berriz, Irurtzungo Ongai garai-

tu zuen. Horregatik, finalerdietan sartu zen zuzenean.

Aurrera-Saiaz pilota eskolako pilotariak txapelduna eta txapeldunordea izanda, eskualdeko kirolarien presentzia nabaria izan da eskuz banakako txapelketa garrantzitsu honetan. Horrez gain, Ugaitz Renobales alegiarraren botileroa Iker Iriarte izan zen, afizionatu mailan ibilitako pilotari alegiarraren bide batez, Renobalesen aspaldiko laguna.

Olarar Txapelketa oso eza-guna eta garrantzitsua da, eta pilotari handi asko ibili dira jokatzen; hala nola, Koka, Galar-



Ugaitz Renobales, Iker Iriarte bere botilerorekin. Ondoa, Olaetxea lizartzarra Renobalesekin. P. RENOBALDES

tza V, Txafee, Olaiola anaiak, Patxi Ruiz, Martinez Irujo, Txomin Nagore edota Zearra.

Binakako Txapelketetan ere ari da alegiarrak: Orioko Txapelketa Eneko Galarragarekin jokatu zuen eta irabaztekoan izan ziren, baina 21 tanto egin zituzten. Lezamakoan lehen

partida irabazi du eta Llodioiko eta Doneztebeko torneotan aurki hasiko da.

Sopelako txapelaren bila

Sopelako Txapelketan ari da orain, eta etzi 13:00etan jokatuko du torneo honetan Lau

t'erdiko finala eta elite mailan, Mikel Gonzalez bizkaitarraren kontra: iaz pilotari hau Renobalesek irabazi berri duen Zaldibarko torneoko txapelduna izan zen. Beraz, norgehiagoka «borrokatua» izango dela espero dute ikusleek, Sopelako pilotalekuan.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Play Station jokoa kiroldegian izan da gazteen atseginerako

Play Station 2.go Buzz jokoa aritu ziren ibartarrak atzo, galdera-erantzunen bitartez puntuak eskuratu zituztelarik



Eguraldi txarraren ondorioz kiroldegiko gela batean aritu ziren jolasean ibarrako gazteak. M. SOROA

MADDI SOROA

Play Stationen jokatzeko aukera izan zuten atzo arratsaldean Ibarako herritar gazteak, izan ere, Ibarako Gizarte Zerbitzuak antolatuta Belabietako kiroldegian Play Station erraldoia jarri zuten martxan. Hasiera batean ekitaldia plaza egitea aurreikusia bazegoen ere, kiroldegian egitea erabaki zuten azkenean euria ari zuelako.

Guztira 25 lagun inguru bildu ziren eta Play Station 2.go Buzz jokoa aritzeko aukera izan zuten. Launako taldeak egin zituzten, bakoitzak pertsonaia bat aukeratu zuelarik. Buzz, tribial joko ezagunaren

antzekoa da, hala, galdera eta erantzunen bitartez puntuak eskuratuz joaten dira partehartzaileak. Galderen artean, denetik dago, kultura arlokoak, historiakoak, naturakoak, etab.

Ekitaldi hau Ibarako Gizarte Zerbitzuetako kale hezitzaileek antolatua izan da eta Ibarren martxan dagoen gazteen inguruko proiektuaren barnean antolatutako dago. Proiektu honek, Ibarako gazteen artean egon daitezkeen hutsuneak zein diren aztertzea du helburu eta horretan ari dira lanean Ariz Rodriguez eta Estitxu Arnaiz Nura gizarte elkarteak kide diren kale hezitzaileak.

Alpatu proiektua irailaz gertotik dago martxan eta helbu-

ru nagusia Ibarako gazteen arteko komunikazio harremana zabaldu eta elkarbizitza arintzea da.

Atzoko Play Stationeko jokoa Eguberri hauetan Nura elkarteak antolatzen duen bigarren ekitaldia izan da. Lehenengoa pasa den abenduaren 26an Ibarako plazan eginiko bizikleta ginkana izan zen. Haste-ko, Oriako txirindulari taldeak utzitako materialarekin oztopoz beteriko ibilbidea egin zuten eta ondoren herri kiroletan aritu ziren uneoro bizikletatik jaitsi gabe, kokkolak biltzen, esaterako.

Aurrerantzean ekitaldi gehiago antolatuko ditu Nurak herrian.

IRURA ▶ GIZARTEA



Haur eta gazteen antzezlanek goraino bete zuten Trinketea

Imanol Garcia ▶ Haurrak izan ziren berriro protagonista Iruran atzokoan. Trinketeko eskenatokia bi antzezlan eman zituzten. 10-12 urte bitarteko haurrak izan ziren lehenak —argazkian—, eta ondoren Gaztelekuok bereak prestatutakoa antzeztu zuten. Herritar ugari bildu ziren, lekua betetzera, eta ederki txalotu zuten haur eta gazteek emandako ikuskizuna. I. GARCIA

LEABURU ▶ POLITIKA



Larte mendira presoan aldeko ibilaldia urte berri egunean

M. Soroa ▶ Ohiturari jarraituz aurtengoan ere Larte mendira ibilaldia egin zuten Leaburuko herritarrek urte berri egunean euskal presoan alde. Hori dela eta, *Euskal Presoak Euskal Herrira* bandera zintzilikatu zuten tontorrean, ondoren, gosari legea egin zuten mendizaleek indarrak berreskuratzeko. HITZA



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Gaztetxearen XIX. urteurrenaren baitan, 21:00etan zahagi sagardoa egingo dute eta 22:30etik aurrera, mus txapelketa Gaztetxean.

Anoeta. Xakearen txokoa egingo dute, Anoetako ikastolan, 10:00etatik 11:00etara; ondoren, ludoteka izango da 13:00etara arte.

Irura. Jaiotza lehiaketako sarien banaketa, 17:00etan izango da; txokolate beroa bizkoxoekin banatuko dute askaria egiteko, 17:30etik aurrera.

ZINEMA

Tolosa. *Infiltrados* filma gaur ikusgai, Leidor aretoan, 22:30ean.

ERAKUSKETAK

Alegia. Ana Jesus Ansorena tolosarraren zeramika koadro lanak ikusgai daude, Alegiko jubilatuen tabernan, urtarrilaren 14ra arte.

Amezketa. Hilaren 7ra arte ikusgai eta salgai izango dira Maite Gurrubaga margolariaren margolanak, Amezketa tabernan.

Tolosa. Maria Jose Rekalderen eskultura erakusketa ikusgai da Aranburu Jauregian urtarrilaren 20ra arte, Bisita orduen baitan.

Tolosa. Hondakinen Ingurugiro erakusketa ikusgai izango da hil honen 13a bitarte Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Ibarra. Iturrioz I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).

20:00-21:00. *Asteko onena.*
21:00-22:00. *Igo bolumena.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Albisteak postontziraino

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Aste honetatik aurrera, HITZAren informazioa e-posta bidez jasotzeko aukera izango dute irakurleek, RSS jarioek ahalbidetuta

TOLOSALDEKO HITZA

ERAKUNDE TITULARRAK | AGENDA | ETXERAK | ZERBITZUAK | IRUGITIA | HERRIATU TXAKIA | AGURRAK

RSS

RSSen bitartez tolosaldeko hitza.info-ko webgunera sartu gabe jaso ahal iz ditzuzu azken albiste zerrenden titularrak, herriela interesgarri deritzozuneti bakarrik sartuz.

- EDIZIO JARRAIA
- ABALTZISKETA
- ALBIZTUR
- ALKIZA
- AMEZKETA
- ARESO
- BALIARRAIN
- BERASTEGI
- BIDEGOIAN
- GAZTELU
- IBARRA
- IRURA
- LEABURU
- LIZARTZA
- OREXA
- TOLOSALDEA
- ADUNA
- ALEGIA
- ALTZO
- ANOETA
- ASTEASU
- BELAUNTZA
- BERROBI
- ELDUAIN
- HERNIALDE
- IKAZTEGIETA
- LARRAUL
- LEITZA
- ORENDAIN
- TOLOSA

www.tolosaldeko hitza.info webgunean sartuta lor dezake irakurleak RSS jarioen erabilera. HITZA

ERREDAKZIOA

Paperean hasieran, webgunearen bidez ondoren, eta norberaren posta helbidean orain. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK egunero eskuratzea errazagoa izango da hemendik aurrera. Izan ere,

herritarrei eskualdeko informazioa ahalik eta modurik erosoenean emate aldera, RSS jarioen bitartez, webgunera sartu gabe azken albiste zerrenden titularrak jaso ahal izango dituzte, norberak interesgarrien deritzonak aukeratzuz.

RSS jarioak XML familiako

formatu bat da; honen bitartez, maiztasun handiz berritzen diren webguneen informazioa zabaltzen da beste webguneetara edo programetara. Honi esker informazioa elkarbanatu eta beste webgune batzuetan eskuratzeko posible da.

RSS jarioen abantaila nagusia da informazioaren lerro na-

gusiak norberaren postan jasotzea, ez baita beharrezkoa web nabigatzailea ireki eta webgunea bisitatzea.

Idea hau gustuko dutenek prozedura erraza jarraitu beharko dute: www.tolosaldeko hitza.info helbidean RSS jarioak jartzen duen atala sakatu eta ondoren, nahi diren atalak edo herriak aukeratu behar dira. Soilik aukeratzetik dituzten atalen titularrak jasoko ditu erabiltzaileak bere posta elektronikoan. Zerbitzu honek bezelatasunik badu, hain zuzen, jaso nahi diren albisteak herriak hautatzeko aukera ematea, alegia. Hala, ez dago zertan eskualde guztiko albisteak jaso. Edizio jarraituan agertzen diren albisteak soilik jasotzeko aukera ere ematen du zerbitzariak.

Programa ugari

RSSetaz baliatzeko, albisteen bilatzaile edo news aggregatore izeneko programak erabili behar dira. Ordenagailuak edo web bitartekoak izan daitezke eta plataforma guztietan topa daitezke halakoak. Erabil daitezkeen programen artean, hauek dira aipagarrienak: liferea (Gnu/Linux), rssowl eta rss-menu (Macos), rss-captor eta rssidreader (Windows) eta alesti, bloglines eta google reader (web).

Aitzakiarik ez dago egunero eskualdeko informazioa etxean nahiz lantokian jasotzeko. Irakurleengandik hurbilago egoteko urrats berria egin du, beraz, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK.

AGURRAK ▶



URTE ASKOA
 Ibon Garaiburu (Berastegi).
 Zorionak bihotzez ebekoan partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea

